

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko ekainak 25 / III. urtea / 81. zenbakia



Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Hoge urte besterik ez ditu eta bizitza oso bat dauka aurretik —zapuztuta—, poliziak bertatik bertara botatako gomazko pilota batek buruan bete-betean jotzearen ondorioz. Maiatzaren 22ko Iruñeko kale-istiluetan larriki zauritua. Txuma Olaberri izen-deituraz, Atarrabiako gaztea. Gutxienekoa da jakitea ea parte hartu zuen ala ez liskarretan, ea adin beretsuko beste gazterekin batera —beti mutil-gizasemeak beraiek—, adrenalina-gorakadatik sendituko ote zuen polizien aurrean, behin beren gordelekutik irtenarazi eta xaxatu ondoren. Berdin dio horrek, baina ez ordea bere osasun-egoerak: koma sakonean egon da, burmuina kalteturik dauka oso, eta eraginak, sufrituko omen ditu bizirik dirauen bitartean. Ez da bizitza arras hautsita geratzen den lehen gaztea. Azkena ere ez omen da izango: tabernetako bozgoragailuen gudu-kantek hola aditzera ematen baitute. Gatazkaren sorburuetaraino joan beharra dagoela diotenari jarraikiz, bide-bazterrera erori da Txuma: Testamendu Zaharrak Cain eta Abel anaien kondaira kondatzen duen pasarte-orrian, hain zuzen. Agintariak ez dute ikerketarik zabaldu, ez da bertasio ofizialik izan: «Ez dezagun hauteskundeetarako giro ona alferrik gal, haien boten galera aurrikusten da eta».

Hamabost urte besterik ez ditu eta bizitza oso bat dauka aurretik —zapuztuta—, ETAK bertatik bertara lehertarazitako auto-bomba batek bete-betean harrapatzearen ondorioz. Ekainaren 21ko Madrilgo kale-hiltzarretan larriki zauritua. Maria Gabriela Cañizo izen deituraz, bertako nerabea. Ezbeharretik bizirik suertatuz gero —begi bat galdu du eta urratuak dauka buru-kaskoa—, ez da urrerantzean Erretiroan zehar bakarrik paseatuko, zortzi urteko bere ahizpa —ekintza berean sakailaturik—, haren ondoan ibiliko baita; zango bat gabe, agian.

Txumak eta M^a Gabrielak ez dute elkar ezagutzen, eta bata bestearengandik desberdinak izango dira, derrigor. Baina badute gauza bat komunean; batzuk eta besteek sarrastegi berera jaurtiki dituztela, aberriaren faborez: zu eta ni, herri-ezherri honetakook, puruago, askeagoak izan gaitzen. Bihotz gogorrekoak!

Iruñeko azken ghettoa

Sanduzelai auzoan, San Jorge etorbidearen eta Kaiko kalearen artean, Iruñeko eta agian Nafarroako azken ghettoa dago, agerian trenez pasatzen den edonorentzat, ezkutuan ikusi nahi ez duenarentzat. Mujika etxetan bizi diren 32 familiak, ijitoak eta tramontanoak gehienak, miseria eta bazterketa dituzte bizilagun. Akaso horregatik, iraunbizitzeko badute-lako nahiko lan, ez dute etorkizunaz hitz egiten, aurki etxerik gabe geratuko badira ere. Sanduzelai-ko Hirigintz Planaren eraginez, hilabete batzuk barrru Mujika etxeak bota egingo dituzte berriak eraikitzeko.

Gerta daitekeenari aurrea hartu nahian edo, Sanduzelaiko Auzo Elkarteak eta beste hainbat taldek



txosten bat landu dute ka-le gorrian gera litezkeen 218 lagunei irtenbideren bat eskaintzeko. Beraien ustez, hoberena familiak sakabanatzea izango litzateke, horrela integrazioa errazteko. Dagoeneko Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate eta Etxebizitza sailburuarekin egon dira eta gaia aztertzeko batzorde bat sortzeko konpromezua lortu dute. Urrats bat eman da, beraz, baina ez dago garbi-hurrengoaren norabidea, Nafarroako Gobernuak ez datorrelako bat etnia gutxiagotuak sakabanatzeko premiaz. Ricardo de Leon sailburuaren ustez, beraien kultura eta nortasuna babestu behar da. Oso polita dena, baina 'babestu' beharreko kultura miseria-rena denean, zalantzaren itzala agertzen da.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK

Euskal Artisten Elkarteari buruzko erakusketa ikusgai dago Nafarroako Museoan, ekain osoan zehar. Pinturak dira denak, eta erakusketa Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoaren elkarlaguntzaz dago antolatuta.

Ximo Amigo artista valentziarra bertako pilotari buruzko pintura erakusketa dauka ikusgai Iruñeko Gotorlekuaren Mistoen Pabilioian, ekainaren 30a arte.

IKASTAROAK

Interpretazioa. Mugimendua eta Expresioa, Inprobisazio korreografikoa eta Abotsa eta bere aukerak izeneko ikastaroak antolatu ditu Nafarroako Antzerki Eskolak uda honetarako. Matrikulatzeko epea dagoeneko zabalik dago, eta uztailaren 2an itxiko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 22 92 39 telefonora deitzea besterik ez dago edo Eskolara bertara joan, Kaldereria kalean.

HITZALDIAK

'Nekazaritza eta abeltzantza baserri munduan. Europarako biderantz' gaiari buruzko mintzaldia eskainiko du bihar, ekainak 26, Jose Maria Lander Azkona UAGN sindikatuko lehendakari ohia. Zuñigako Valdelana zentro kulturalak antolatutik, herriko udaletxean izanen da, arratsaldeko 19.00etan.

'Biziaren alternatibak' izenburuko mintzaldia eskainiko du gaur ostirala, ekainak 25, Vicente Madoz medikuak, Tuterako Castel Ruiz zentro kulturalen. Hiri-ko Drogazaleen Laguntzarako Elkarrekin antolatutik, hitzaldia arratsaldeko 20.00etan izanen da.

ANTZERKIA

Creaciones Matxin antzerki taldeak obra bat eskainiko du gaur ostirala, ekainak 25, Lakuntzako herriko plazan. Antzerki emanaldi hau arratsaldeko 20.00etan hasiko da, eta bertan, bufoien munduko gorabeherak antzeztuko dira.


La Traperia Azkoiengo antzerki taldeak obra bat antzeztuko du datorren ostegunean, uztailak 1, Tafallako Kultur Etxearen ekitaldi aretoan. Herriko udalak eta Kultur Patronatoak antolatutik, emanaldi gaueko 10.00etan hasiko da. 'La doma de la bravia' izeneko lana eskainiko dute. Sarrerak 200 pezetatan salduko dituzte.

San Benito-Larraonako kobazuloa

Asteburu honetarako mendi txirindularitza egiteko ibilbidea antolatu du Sakanako Kirol Batzordeak, ohizko txangoaz gain Urbasa hobeto ezagutzearren. Izan ere, ederki ezagunak dira Ameskoak eta Sakana arteko errepideak zeharkatzen dituen lurrak, eta baita Lizarragako mendateak erakusten dituenak ere, bertan baitaude azpiegitura gehienak, hala nola kanpina, tabernak eta txabolak, eta nafarrendako gertuen dagoena baita.

Badago, hala ere, beste Urbasa bat, Araban sartzen dena, eta hori izango da asteburu honetarako aukeratua. Ibilbidea Bioitzan kanpinetik aterako da igandeko goizeko 9.30etan, eta iraupena lau ordu ingurukoa izango da: 45 kilometro, oro har. Antolatzaileek azaldu dutenez, ez da aurretik izena eman behar, Bioitzan bertan bilduko baita taldea, eta zailtasunari dagokionez, 'erreza' etiketa paratu diote. Denendako aproposa, beraz.

Itteera, esan bezala, Bioitza kanpinetik egingo da, eta hortik, hegoaldeko bidea hartuta, Iturriketarantz joango gara. Bertan, mendebaldera jo eta Aitzluzerako bideari jarraiki, Aldaranatik, Opakuako gaineraino helduko gara, Araban dagoeneko. Bertan, ekialderantz joko dugu berriro,



eta Larrazabal eta Urkibi dermionetik, Bagaioko iturri ondotik pasata, berriro helduko gara Bioitzara.

Inguru horietan oso ugariak izan ziren beste garai batzuetan artaldeak eta behitaldeak, eta baita behortaldeak ere. Egun, bakarrik ardi latxak gelditzen dira, eta tokien arabera. Ugariak, dudarik gabe, Sakanan daude, baina Arabako lautadan ere oraindik aurki daitezke, eta Opakuako gaztak merezitako fama dauka. Hala ere, oso higadura

handia izan da inguru osoan, eta larreek euri kopuru handiak behar dituzte probetxuzkoak izateko. Honi gehitu behar zaio azken urteotan igoera izugarria izan duen turismoaren eragina, artaldeei babesa emateko Nafarroako Gobernuaren zenbait erabaki sortu duena.

Hain zuzen ere, Urbanen jarri dira martxan lehendabiziko aldiz Nafarroan neurri zehatz eta bereziak jendearen inbasioa leuntzeko. Emaizak oraindik ikus-teke daude.

ASTEKO PERTSONAIAK



Enrique Diez de Ultzurrun
Kazetaria



Pedrag Spasic
Futbolaria



Mirentxu Purroy
Zinema zuzendaria

Euskalerria Irratiko kazetariak aste honetan aurkeztu du, Luis Mari Igartuarekin batera, 'Nafarroako Euskaldunen Mintzoak' lanaren bigarren zatia, orain bi urte lehenengoa aurkeztu zuten bezala. Oraingoan, Nafarroako 13 herri desberdinetako hizlariak agertzen dira, bere hitz egiteko modu berezian istorioak, herriko ohiturak, txistak, eta bestelakoak kontatuz. Espartza, Otxagabia, Goizueta, Intza, Iribas, Saldias, Orokieta, Labaien, Abaurregaina, Arano, Ihaben, Arruazu eta Etxaleku herrietako biztanle banaren abotsa entzun daiteke lanak dituen hiru kasetetan eta liburu bat ere atera dute, hitz guztien itzulpekin. Lanaren helburu nagusia «Nafarroan entzun daitezkeen euskarazko moldeak biltzea izan da», Diez de Ultzurrunek azaldu zuenez.

Pedrag Spasic Osasunako futbolari serbiarra Iruñean geratuko da hurrengo denboraldian, beste talde bateko eskaintza izan arren. Hemen «oso ongi» dagoela azaldu zuen, Universidad de Leon talde mexikarrak Osasunak baino gehiago ordaintzen zion arren. Talde nafararekin duen kontratua heldu den urtean amaitzen zaio, baina berak jarraitzeko gogoak dituela aitortu zuen. Osasunako beste jokalaririk, adibidez, berehala utziko du taldea, Oviedora joateko. Kosecki poloniarra ere utziko du talde naparra, oraindik gauzak argitu gabe dituen arren. De Luis jokalaririk ere ez du gehiago jokatuko, belaunetan duen lesioak uste baino garrantzitsuagoa baita.

Denboraren atzetik izeneko erdimetraia aurkeztu zuen pasa den larunbatean Mirentxu Purroy zinema zuzendariak, Emakumea eta Zinemari buruzko VI. Zikloaren barruan. Pelikula hau benetako gertakizunetan oinarrituta dago, 1957ko Iruñean nazionalisten seme-alabeei irakasten dien andereño baten inguruan kokatzen baita historia. Filmearen aurkezpenera jende ugari hurbildu zen, nazionalismoaren munduko pertsonai ezagunak, gertakizunak bizi izan zituztenak, eta kuriositatea zuten beste batzuk ere. Mirentxu Purroy berak bizitako gertakizunak kontatu zituen erdimetraian. «Nik irakasle hau ezagutzeko zortea izan nuen txikia nintzelarik, berak ematen zituen klasetara azaldu bainintzen», adierazi zuen zuzendariak.

AHAZTU GABE!

SAN PEDRO eguna ospatuko du heldu den asteartean, hilak 29, Altsasuko herriak, izen bereko parajearen egiten den erromeriarekin. Goizean goiz mendira —Altsasutik lau bat kilometrorra— igo, mahaia prestatu eta baselizan meza ospatuko da, eta ondoren, ohi den bezala, udalak emandako ardoa dastatuko da zilarrezko kikaretan. Zortzikoaren txanda izango da orduan, herriko txistulariekin, eta bertan ohi-tura da lehendabizikoa alkatetako dantzatzea. Gainontzeko guztiak nahi duenak. Eguerdi partean, bazkariari ekingo zaio. Horretarako, porlanezko dauden mahaiez gain —aspaldian koadrila batzuek paratutakoak—, koadrila bakoitzak bere mahaia eramaten du herri-ritik, eta bazkarian ia herri osoa egoten da, fin-fina, dauden haritz ederren gerizpean. Bazkaldu ondoren, udalak emandako puroa jaso, eta hortik aurrera, festa, musika eta kanteekin, arratsaldean herri-arte jaitzi arte. Han jarraituko du jaiak.

Hortik astebetara, urdiantarrek egingo dute beren festa, horretarako duten tokian. Izan ere, aspaldiko kontua da bi herrien arteko lehia San Pedrori buruz, baina altsasuarra nagusitu dira azken urteotan. Jendez eta animoz.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarriketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

XINGULI-MANGULU' larunbat

goizetan Euskalerria Irratiak eskaintzen duen haurrentzako programaren azken saioa izanen da bihar, goizeko bederatzieta. Uda pasa eta gero, ikasturtearekin batera hasiko da berriro ikastola ezberdinetako haurren laguntzarekin egina dagoen irratisaioa. Bestalde, eguneroko programazioak berdin jarraituko du, goizeko saioak, tertulia, agenda eta bestelakoak eskainiz.

Iruñea



Urduri ageri ziren Barricadakoak kontzertuaren aurrean, «oso berezia delako».

OSKAR MONTERO



UHARTEko Euskararen Eguna ospatuko da larunbat eta igandean. Bihar haurrentzako jokuak izango dira igerilekuan, lau t'erdietatik aurrera, eta seieta, eskuzko pilota partiduak: Esain-Etxandi, Sueskun-Bordaren aurka. Ondoren, paleta partiduak izango dira: Udaberriko Txapelketaren finalak, hain zuzen ere. Igandean, hilak 27, goiz-soinuak izango dira Uharte-ko gaitariekin, eta 10.00etan, kalejira: zankoak, zantantzarrak, erraldoiak, txistulariak, dantzari, gaitari eta fanfarrea bertan direla. Eguerdian Euskarazko meza, eta 12.30etan, Uharteko Dantzari eta Txalaparta ekitaldia. 13.00etan Laxo partiduak, Baztan eta Male-rrekaren artean, eta ondoren, herri bazkaria, trikitilari eta bertso-lariek: Silveira, Fernandez, Gomez eta Teiletxearekin. Eguna Anker taldeak eskainiko duen dantzaldiarekin amaituko da.

ALTSASUko Sanjoanak, Sakanako bertso txapelketa, eta Lakuntzako Eskolara Xabier Mendigurenek egindako bisitaldia dira, besteak beste, 'Laisterkan' al-dizkariaren 10. zenbakian ageri diren gai aipagarrienetakoak.

Barricada: «Nolabaiteko omenaldia»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

«Taldek 250 pezeta ordaintzea aukera aparta da, eta horregatik ez du inork Barricadaren hamargarren urtemugaren kontzertua galdu behar». Barricada, Satira, Christel, Flitter eta Kojon Prieto y los Huajolotes Iruñeko Zezen Plazan ariko dira bihar talde txantrearraren hamargarren urtebetetzea ospatzen, 'Rockaren hamar urte Nafarroan' Iruñeko Peñen Batzordeak antolatutako ekitaldian. Sarrera kontzertua hasi aurretik erosten dutenek 900 pezeta ordaindu beharko dituzte, eta 1.000 sarrera plazan bertan erosten dutenek. «Hau da», Barricadako 'Bonik' dioen moduan, «250 talde bakoitzeko».

Jaialdia arratsaldeko zazpi t'erdietan hasiko da. Lau orduz luzatuko da, eta 60.000 soinu watio eta 380.000 argi watioen laguntza izanen dute taldeek. Horretaz gain, hiru pantaila erraldoi, eta ikuslegoa grabatuko duten hiru kamara izanen dira zezen plazan. 'El Drogasen' esanetan, horrek esan nahi du «bonbila eta bafle asko» izanen direla. Bonbila eta bafle asko egoteaz gain, ezusteko gastronomikoren bat topa dezakete zezen plazara hurbiltzen direnek, eta taulagainen gonbidatu garrantzitsua izanen

da. 'Drogasek' esaldi bakar batekin definitu zuen: «Guretzat oso berezia izan da, eta gauza asko erakutsi dizkigu». Horretaz gain, madrildarra, kimaluzeduna eta sudurluzea dela esan daiteke. Ezustekoekin segituz, aipatu beharra dago Drogas mexicarrak abesten trebea dela oso.

Kontzertuaren helburu nagusia zein den argi dago Drogasentzat: «Denok gustura egotea». Barricadakoak ez dira omenaldien lagun, baina biharkoa Iruñeko Barricadazaleei eskeintzen dioten «nolabaiteko omenaldia» dela onartzen dute. Hori dela eta, egun duten erreperorioa ez ezik

aspaldiko kantak ere abestuko dituzte, «kontzertua guretzat oso berezia delako. Horretarako aukerarik hoberena da». Beste helburu garrantzitsua hasberriak diren taldeei laguntza ematea da, «baina inoren aita izan gabe» 'El Drogasek' zehazten duenez. «Mundu honetan oso zaila izaten da norbaiti laguntzea, eta gainera gu'ez gara inor jendeari laguntzen ematen ari garela esateko. Beste bost taldeek zezen plazan jo ahal izateko aukera polita izanen da, besterik ez. Ez daukate gure laguntzaren beharrik. Christelek, esate baterako, estatuko ahotsik hoberena du».

Esan bezala, Peñen Batzordeak antolatu du ekitaldia. Aspal-didanik kontzertu berezi bat egiteko asmoa zuten taldekoek, «Gotorlekuan edo horrela», baina ez zuten erakunde ofizialen laguntza lortu. Peñen Batzordearengana jo zuten orduan, «hori delako, gure ustez, Nafarroako elkarte herrikoiak hoberen bateratzen dituen elkartea». Eta Peñen Batzordeak kontzertua antolatzearen ardura hartu zuen, «ezin genuelako ezetz esan». «Hemen erakundeek ez dute ezer egiten kultura herrikoia aldez. Guk ezin dugu hutsune hori bete, baina ahal dugun moduan laguntzeko prest gaude».

Kartelik gabe

J. K. L. / IRUÑEA

■ Barricadakoak urduri ageri dira haien urtebetetze jaialdiaren atarian. «Iruñean jotzen dugunez, eta muntaia ohi baino handiagoa denez, urduritasuna ohi baino goizago heldu zaigu». Hori dela eta, txantrearek nahiago dute kontzertuari buruz gehiegi ez hitz egin. Esaterik, ordea, badago zer esaterik bere inguruan. Alfredo Jaime alkateak kontzertua iragartzen zuen kartela Iruñeko hormetan paratzea debekatu dio Peñen Batzordeari. Alkateak argi eta garbi azaldu zien kartelak paratzeak diru laguntza galduko luketela, eta halabeharrez Jai-

meren agindua bete behar izan dute. Atarrabiako udaltzaingoak Jaimeren bideari jarraitu zion, eta gauza bera gertatu da Garesen. Horren ondorioz, orain arte sarrera gutxi saldu dira, eta horrek Barricadakoan, eta Peña Batzordekoan urduritasuna areagotu du.

Sarrera aurretik erosten bada 900 pezeta ordaindu beharra dago, eta 1.000 zezen plazan bertan erosten bada. Tarteak ez da handiegia, eta hori dela eta, jende gehienak sarrera azken momentuan erosiko duela espero dute antolatzaile eta musikariek. Drogasek ez du etsi nahi. «Azken unera arte guztia ongi aterako dela pentsatuko dut».



TAFALLAko Hirurteko Inbertsio Egitasmoan izandako murrizketak salatu berri ditu Herri Batasunako udal taldeak. Izan ere, 1.500 milioi pezetatik gora eskatua zuten udaletxeak, eta orain arte soilik 12 jaso ditu Nafarroako Gobernutik. Udalak aurrikusita zeuzkan lanen artean, Alde Zaharra eta udaletxearen birmoldaketa, argiztapen artistikoa interesgarriak diren eraikinetan, eta kale eta azpiegiturretan konponketa franko ziren. Nafarroako Gobernuak, ordea, soilik txabola bat kentzeko dirua eman duela salatu du HBko taldeak. Ohar batean UPN eta PSOE taldeek egindako kexuak salatu ditu «arazoaren zio nagusia Nafarroako Gobernuak onartu dituen arurerekontuak baitira».

ZIZUR NAGUSIAn lau lagun atxilotu zituen joan den astean Espainiako Poliziak kokainarekin trafikatzeko. Operazioa Iruñeko Donibane Auzoan dagoen Y Venga lokalaren inguruan egin zen, bere jabeak, aurretik makina bat aldiz atxilotutakoak, horrekin lotura zuelakoan. Ikerketak burutu ondoren, ekainaren 15ean atxilotu zituen Poliziak.



Sanduzelaiko Mujika etxeetan 32 familiak, ijitoak eta portugaldarrak gehienak, miseria dute bizilagun. Etxeak gutxi barru bota egingo dituzte, 1986ko Hirigintza Planaren eraginez, baina aztermakinak ez du ghettoa botako. Gehienez lekuz aldaraziko du eta, hau ebitatzeko, laguntza eskatu dio Sanduzalari auzoak Nafarroako Gobernuari. Etxebizitza duinak ezezik, integratzeko aukera eskaini nahi diete bertan baztertuta bizi diren 218 lagunei.

Mujika etxeetan bizi da miseria

ANA UNANUE / IRUÑEA

Bazkalordua da eta Antonio-
ren etxean, Kaiko kaleko 10. zen-
bakian, janariaren usaina patioetik
datorren kiratsarekin nahasten
da. Portugaldar honek sei urte da
ramatza Mujika etxeetan, bere
emazte, amaginarreba eta bi se-
me-alabekin. Pisuari sartzeko
230.000 pezeta ordaindu zizkion
beraien aurretik han bizi zen
emakumeari, baina ez du inolako
agirik eta etxeak botatzen
badituzte kalean ikusten du bere
burua eta familia osoa. Beldu-
rriaren gainetik dago, haatik, gi-
ro hori uzteko nahi: «Jar deza-
tela bonba bat eta bun!, dena
behera», dio Antonio-
ren emazteak erraztasunarekin, «etxe
garbia eta polita, hori da behar
duguna».

Goiko pisuan, laugarrenean,
Mari Carmen zazpi anai-arrebe-
kin eta gurasoekin bizi da; hamar
lagun 73 metro karrutuan. Duela
hamar urte iritsi ziren eta lekuz
aldatu nahi lukete, baina ez dau-
kate modurik, etxera soldata ba-
karra sartzen da eta. Bera Do-
nostian jaio bazen ere, Mari Car-
menen gurasoak portugaldarrak
dira, inguruko gehienak bezala.
Mujika etxeetan 32 familia bizi
dira egun, 15 ijitoak, 14 tras-
montanoak (Portugaleko Tras
os Montes-ekoak) eta 3 payo-ak.
Hala ere, portugaldarrak dira
nagusia, familia handienak dituz-
te eta. Horrela, guztira bizi di-
ren 218 lagunetatik 117 portu-
galdarrak dira eta 82 ijitoak,
gehienez haurrak eta gazteak
(% 60).

Mujika etxeek eraiki zituen
enpresari zor diote izena. Indus-
trializazio eta hazkunde urteak
ziren, 50ko hamarkadaren ama-
ieran, eta Mugica y Arellano en-
presak etxebizitzak eraiki be-
har izan zituen bere langileen-
tzat, hala eskatzen baitziren ga-
raiko legediak. Lehen langileak
1960. urtean jarri ziren bertan
bizitzen, baina hamabi urte ge-
roago enpresak pot egin zuen eta
1972tik aitzina Mujika etxeak
husten joan ziren. 1979an jato-
ritzeko familia bakarra geratzen
zen.

Geroztik beste aukerarik ez

zutenak bakarrik hurbildu dira
bertara, hasieran ijitoak eta por-
tugaldarrak gero, apalak baina
duinak ziren etxebizitzak mis-
eriarren gotorleku, benetako ghe-
tto, bihurtu arte. Etxebizitzaren
egoera penagarria da: leihoak eta
ateak falta dira nonnahi, zaborrak
dena estaltzen du —patioan ez da
zorua ageri, zarama tonorrek ez-
kututzen dute—, saguak eta arra-
toiak, hormak belztuta. Urteko
sasoi bakoitzak bere gaitzak da-
kartza: neguak kea, egurra erre-
tzen baitute etxea berotzeko, eta
udak culliak, beroarekin kiratsa
areagotzeaz gain. Inguruko pai-
saia ez da hobea: ez dago argirik,
lohia besterik ez. Etxe barruan
argindarra izateko zuzenean har-
tzen dute lagetatik. Arriskutsua,
baina merkea.

Portugaldarrak
dira nagusi, beraiek
bait dira familia
handienak dituzte-
nak.


Mujika etxeetan hirigintza
eta soziologiak egin dute topo.
Etxebizitzaren egoera kaskarrari
langabezia, drogak eta osasun,
hezkuntza eta etnia gutxiagotuen
arazoak gehitzen bazazizkio,
marjinazioak bere aurpegi gordin-
ena erakusten du. Eta gizarteak,
erabat baztertuta bizi diren horiek
—Nafarroan 2.500 inguru— be-
reganatzeko ezintasuna. Esan
gabe baitoa Mujika etxeetan pi-
latzen direnei Mendillorri eta
tankerako eskaintzak ilargia be-
zain urrun geratzen zaizkiela.

«Zoru honetatik irteko la-
guntza eskatzen dut, nire seme-
alabek zerbait hobea merezi dute
eta», dio Mari Josek bere etxeko
egongelan. Berak, senarrak eta
lau seme-alabek hamar urte da-
ramatzate Mujika etxeetan eta
Gizarte Segurantzak ematen
dikien laguntzetatik bizi dira.
Ijito izan gabe bertan bizi diren
bakanetakoak dira; Mari Jose
Bilbon jaio zen, senarra Huelvan
eta seme-alabak, gazteena 10 ur-
tekoa eta nagusia 17koa, Iruñean.
Inguruko zikinkeriak bere onetik
ateratzen du Mari Jose: «Iritsi gi-
neuk, eskaileratan etzanda geratu
zen eta».

Mari Josek, beste guztiek be-
za-la, etxeak bota egin behar dituz-
tela aditu du. «Noiz?», galdetzen
dute denek, eta ezin da jakin zerk
duen indar gehiago, kale gorrian
geratzeko beldurra edota behin-
goz ghetto-tik irteko esperan-
tzak. Amak etxea uzteko gogo
badu, are gehiago seme-alabek,
«horixe baietz». Hiru aldiz egin
dituzte paperak babes ofizialeko
etxebizitzak eskatzeko, baina
beste hainbestetan jaso dute
ezezkoa. «Mujika etxeetan bizi
garela jakinda sekula ez digutela
emango esan zidaten gainera».



Etxeak zeharo arrailduak eta
lohiak beteta daude, kanpo-
tik zein barrutik, eta itxu-
ra penagarria da. Hemen
ondoan haur ijitoak
etxearen atarian
jolasen, eta
goian, esku-
inean, An-
tonio-
ren fa-
milia.
O.M. / A.B. / A.U.



A.U. / IRUÑEA

Sanduzelain elkartasunak
zerbait esan nahi du oraindik.
Langile auzoa, bertan bizi dira
Iruñerriko gutxiengo etnikoen
erdia baino gehiago —700 ijito
11.000 biztanleko auzoan—,
marjinazio giroak elkarbizitza-
rako dakartzen arazo guztiek.
Hala ere, ijitoez hitz egin dute-
nean ez da auzotik bota ditzatela
eskatzeko izan —tamalez ohiz-
koena—, horientzat irtenbide
duina proposatzeko baizik.

Auzo Elkartek, Sanduzelaiko
hainbat taldeekin elkarlanean,
Mujika etxeei buruzko txostena
egin du eta arazoa bere gain har-
dezan eskatu dio Nafarroako Go-
bernuari. Txostenaren egileak
Ricardo de Leon Etxebizitza eta
Gizarte Ongizateko sailburu-
ekin bildu ziren joan zen astean eta
gaiaz arduratuko den batzordea
sortzeko konprometua lortu zu-
ten Gobernuaren aldetik.

Lehen urrats hau eman bada
ere, ez dago argi hurrengo zein
norabidetan emango duten, Auzo
Elkartek eta sailburuak iritzi ez-
berdinak dituzte eta. Sanduzelai-
ko talde eta langile sozialen us-
tez, gutxiengo etnikoen kontzen-
trazioak bazterketa areagotzen
du eta integrazioa oztopatzen.
Hori dela eta, Mujika etxeak bo-
tatzen dituztenean bertan dauden
familiak sakabanatzea proposatu
dute. Txostenaren hiru familia
talde bereizi dituzte: diru-lagu-
tzarik behar ez dutenak, Admi-
nistrazioaren laguntzarekin
etxebizitza normalizatueta sar-
tzeiko moduan leudekeenak eta,
azkenik, auzo normalizatu ba-
tean bizitzeko diruaz gain inte-
gratzeko bestelako laguntza

—Santa Lucia zentroan izan li-
teke— behar dutenak.

Angel Larrea Auzo Elkarteko
ordezkariaren ustez, «oso inpor-
tantea da kasuak banan-banan az-
tertea, oso ezberdinak dira eta.
Batzuk aldegitiko irrikitan daude
eta horiei laguntza eskaini behar
zaie. Beste batzuek, berriz, ez du-
te egoeraz aldatu nahi, oso eroso
daude eta. Drogekin dabilzanak,
esaterako, etxe gehiago dituzte
eta ez dute diru premiari, baina
ez dute hortik joan nahi,
ghetto-aren babesa galdu egingo
bailukete».

Sanduzelaikoek ideia hauekin
jo zuten Gobernuarengana, baina
Ricardo de Leonek Europako
Komunitatearen irizpideei heldu
zien. Sailburuak egunkari honi
azaldu dionez, «Europak ez du
sakabanaketa gomendatzen.
Kontuan izan behar dugu gu-
txiengo etnikoek beraien kultura
eta nortasuna dutela. Ijitoek ez
zaie integrazio hitza gustatzen,
behartutako kulturizazioa irudi-
tzen zaie eta. Horregatik, kontuz
ibili behar dugu gutxiengoaren in-
tegrazioa hitz
egiterakoan, in-
tegratzeko aurre-
tik zerbait dese-
gin behar dela-
ko».

Horregatik,
badiudi Nafa-
rroako Gobernu-
a ijito guztiak beste
etxebizitza ba-
tean biltzearen
alde dagoela.

Zer egin?

Horrela lekuz aldatuko lukete
ghetto-a, baina bazterketak bere
horretan segituko luke. Ricardo
de Leonek ez du horrela ikusten,
ordea. Sailburuaren esanetan,
Mujika etxeen kasuan «ezin da
ghetto-az hitz egin. Egoera be-
reain bizimodura moldatzen bada
eta beraiek onartu egin badute,
niri hori ez zait ghetto iruditzen».

Antzera gertatzen da hezkun-
tzarekin. Sanduzelaikoan iritzi-
z, ez da konpenigarría gela batean
ijito gehiegi pilatzea, beraien in-
tegrazioa zailagoa egiten delako
eta, aldi berean, gainontzeko hau-
rrekin arazoak sortzen direlako.
Gurasoak irakaskuntzaren maila
jaitsiko den beldur dira eta ikas-
te bezalako aldatzen dituzte umeak.
Txostenaren arabera, konpenbi-
dea ez da ijito guztiak gela batean
bereiztea ere, baizik eta oreka ba-
tekin banatzea gela. Ricardo
de Leonen esanetan, berriz, «de-
nak batera egon nahi badute, utzi
egin behar zaie. Zuk ikastolara
joan nahi baduzu, nik ezin dizut
gatzelerazko hezkuntza jasotzera
behartu. Berdin gertatzen da ij-
toekin».

Integratzeko
sakabanatu ala el-
karrekin utzi be-
raien nortasunari
eusteko? Zalan-
tzak sortzen dira ia
nortasun bakarra
miseria denean.

Auzo Elkartea
sailburuak egin-
dako hausnarke-
tik aztertzen ari
da orain. «Gu za-
balik gaude eta
iritzi guztiak har-
tuko ditugu ain-
tzat», dio La-
rreak, «gakoa da
jende hori kalean
egongo dela gutxi

barru eta irtenbide hoberena es-
kaini behar diegula. Mujika
etxeak botatzen dituztenean,
akaso Sanduzelaiko arazoa bu-
katuko da, baina hori ez da kon-
tua, ghetto-a beste norabait
emanda ez delako ezer konpon-
tzen. Pertsonak dira, ez anima-
liak, eta erantzun bat merezi dute
Administrazioaren aldetik».

Nafarroako Gobernuak bo-
rondate ona duela uste du La-
rreak, baina sailburuaren plan-
teamendua nahikō teorikoa iru-
ditzen zaio Mujika etxeetako
errealitatea ezagututa: «Bertako
ijitoek sekulako etnia kontzien-
tzia eta nortasuna edukiko balute
bezala ari da sailburua, baina ez
dago horrelakorik. Ez dute inol-
ako egituratarik, ia labanka-
daka ari dira eta».

Antonio, Mari Carmen eta
Mari Josek ez dute inolako za-
lantzarik. Aukera ematen badie-
te, nahiago dute auzo normaliza-
tu batean bizi. Etxebizitza eta
Gizarte Ongizateko sailburuak
aipatzen dituen «kultura eta kon-
tzentzia etnikoak» ez dira inon-
dik inora agertzen. Ijito portu-
galdarrak beste ijitoen beldur di-
ra eta beraien artean ez dago ha-
remanik. Beste ijitoen artean,
berdin: ijito «onak» eta «txarrak»
bereizten dituzte. «Hemen ba-
koitza berera doa», dio Antoniok,
«eta nik behintzat nahiago nuke
auzo normal batean egon».

«Nik ez dut drogatan dabilzenekin
ezer nahi eta ijito guztiak daude
horretan sartuta», gehitzen du
Mari Carmen portugaldarrak.

Miseriak eta iraunbizitzeko
borroak bakarrik elkartzen ditu
eta ez dirudi gehiegi inporta-
zaiekin lotura hori haustea. Ai-
tzitik, hori eskatzen dute.

Gazteendako Zokoa



XAKEAN

Begiak ixten direnean



J.M. Muruzabal, txuriekin, Pablo Torresen aurka.

1.e4,c5; 2.Zf3,d6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,a6. Ziur aski, beldurak eragindako jokaldia. Denbora galdu du. Arruntagoa da 'g6', alfila hortik ateratzeko. 6.Ae3,e6. Alfil bati moztu dio bidea, bestea ateratzeko. Hobeia ematen du 'g6' jokaldiak. 7.f3. Txuriek erabakita daukate: erregearen alde horri eraso egitea. 7...Ae7; 8.Dd2,Ad7; 9.g4,e5. Oso jokaldi arina, pentsatu gabea. 'd5' laukia utzi dute txurien esku, eta ondorioak larriak izan daitezke. 10.Zb3,Ae6; 11.0-0-0, Ab3; 12.a-b3,b5. Honelako partidetan, bi endrokeak erasotzen dira, ea nor iritsi lehenago. Baina zaldia ateratzea zuhurrago zen. 13.g5,fZ-d7; 14.Zd5. Oso toki ona. 14...Af8. Txarra, beharrik gabe: endrokea galerazten du eta denbora galtzea da. 15.Ah3,a5; 16.Dc3. Estrategia aldaketa, beltzek damaren aldea ahuldu dutelako. 16...Za6; 17.Dc6,Dc8. Amore eman zuten beltzek. Ez zuten jokaldi onik. 'Ad7 xa' nahikoa da gaztelua galtzeko.

Bertsoak

Ikasleen nekei buruzko bertsoak. Leitzako Bertso Eskolakoak.

Ekain aldera etortzan zaigu
guri azterketaren gerra
lan asko egin behar da eta
ezin da izan alperra
Alde batera utzi behar da
alperkeri ta piperra.
edo udaran pagatu behar
egiten bada okerra
ikasleentzat ez da izaten
hau hilabete ederra

Sasoi honetan ematen dugu
estudiatzeko makinak
azterketetan jarri behar da
urte guztian egiñak
eta batzutan alperrik dira
egindako ahalegiñak
lo gutxi egin, gutxi atera
gainera buruko minak
horrelakoak izaten dira
ekaineko esaminak

Oskar Estanga

JOSU ZABALA

Begiak ixten direnean, egunez gertatzen ez diren gauzak gertatzen dira, sinestu ez daitezkeenak sinest daitezke, eta ikusezinak ere ikus ditzakezu. Begiak ixterakoan, gure mundua desegiten da, hauts egiten da. Beste batzuk ordea, sortu eta hasi egiten dira, bitartean zu, begiak itxita, unitbertsoan zehar jirabiraka zabiltzan orbitan. Bapatean, beste mundu batean aurkitzen zara eta guztiz izututa korrika hasten zara, baina inora ez zoazela ikusten duzu, eta gutxinaka gelditu egiten zara. Mundua hutsik dago eta zu, honen barnean bakarrik, zer egin jakin gabe.

Bapatean atzo goizean hitzegiten ari zinen lagunarekin topo egiten duzu, non eta zer egiten ari zaren zure buruari

diozun bitartean. Baina, lehen hautsa besterik ez zegoen tokian, lan egiten duzun lantegia aurkitzen duzu. Barruan sartu eta, honen barnean zure emaztea sukaldean igeri egiten ikusten duzu. Eroturik zaude-lakoan eta, ikusten duzuna ez sinistean, begiak ixten dituzu eta berriz irekitzen dituzunean, bost ate dauzkan gela batean bakarrik aurkitzen zara. Batera jotzen duzu, eta bertan irakur dezakezu: 'Soinuak'. Guztiz larritua eta ezer jakin gabe, ireki egiten duzu, bertan soinuak hortik pozik ibiltzen ikus ditzakezu, baina soinu asko dago. Belarrietan mina sentitzen duzu eta atea ixten duzu.

Beste ate batera jotzen duzu, eta oraingoan zera jartzen du: 'Zure ametsa', eta bi aldiz pentsatu gae atea ireki egiten

duzu. Zure bizitzaren ametsa zein den galdetzen dizute eta zu hegan egitea dela esaten diozu. Baina, zer sentitzen duzu? Gorputz guztian zatzadak ematen egongo balizute bezalako mina senti dezakezu, zer ari da gertatzen? Hegoak ateratzen joan zaizkizu eta isatsa!! Momentu batetik bestera txori bilakatu zara, orduan hegan egiten hasten zara, ze gustora sentitzen zara hegan egiten! Zurekiko esaten duzu: begiak itxita hegan egin dezakezu? Bai, erraza da, baina kontuz ibili! Begiak ireki ezin duzu, hegoak ez zaizkizu mugitzen, laister ireki begiak, indarrez egin, azkar. Ja!! Aaaaah!!

—Zer zabiltza, Koxme?—
emakumeak
—Aaaai!!
—Minik hartu al duzu?




Jenero Xumekoak

Peligro Benta (V)

Nagi-nagiki gotoizko hodeiak astalkatzen ari da zerruan Azoresetatik etorri den antizikloia. Zuk baino askoz ere gehiago maite nau zure amak, Hollywood balitz, harekin nindoake.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

HITZ
GURUTZATUAK

EZKER-ESKUIN: 1.- Ibil nadin. 2.- Musikanota. Madaria. 3.- Ura 100 gradura iritsi. Gipuzkoako ibilgailuetan. 4.- Katu, hitz elkarketan. Libre. 5.- Berilioa. Bizkaiko herria. 6.- Hari, zuen. Diti. 7.- 499. Hilurrenaren egoera. 8.- Pluralean, urtar bat. Luze hitzaren kontsonanteak. 9.- Suge gisako arraina.

GOITIK-BEHERA: 1.- Toka, du. Ohorezko hitzmate. 2.- Noranzkoa. 3.- Lehenengoa. Sinismenik ez duena. Egia hitzaren erdian. 4.- Amai. Noka, naiz. 5.- Zezen zikiratua. Umorezko kolpea. 6.- Beharra. Leku. 7.- Erbioa. Bizkaian, ume. Röntgen. 8.- Neskatxa. 9.- Bete. Joan den urtean.

N-77

Dos Hermanas /
Biaizpe / Axitarte (II)

Joan den astean hiru izenen ahozko usadioa eta esanahiak aztertu genituen. Gaurkoan testu eta komunikabideetako erabilerari begiratu diogu. *Dos Hermanas*, erdaraz, karlistekin lotutako agiritan azaltzen zaigu aurreneko aldiz (seguruenik izena garai horretan asmatu zen). Euskarazko testigantzarik ez dugu (ingelesez euskaraz baina lehenago idatzi zen *The Two Sisters*) Orixek *Kiton arrebarekin* idatzi arte: *Irurtzungo Bi Aizpen gisako bi mendi*. Testu arruntetan UEUren *Irurtzun Proiektuan* (1980) *Biaizpeta* erabiltzen da. Errepidetako atlasetan, Planetak eta Firestonek Espainia guzira egindako atlas nazionaletan, *Biaizpea* ikusten dugu Planetakoan eta *Biaizpa* Firestonekoan. Gainera Peña Santiagoren *Aralar* liburuan *Biaizpak* leitzen dugu eta Arantzadi Elkarteak Euskal Atlas Etnolinguistikoa II. alearekin batera argitaratutako planoan *Biaizpe*. *Axitarte* inon ez dugu ikusi.

Komunikabideetan denetarik dago. EGUNKARIAK, gaizki ulertze baten ondorioz, *Axitarte* erabili izan du. ETBk *Aizpea* eta *Dos Hermanas* erabiltzen zuen baina gaur egun, eguraldiari buruzko saioan, *Aizpea* erabiltzen du. Euskadi Irratian antzeko zerbait gertatzen da. Telenavarran eta RNEn *Biaizpaz* baliatzen ziren eta Euskalerrria Irratian *Axitarte* eta *Biaizpaz*. Bide nabar, esan dezadan Nafarroako Gobernuak bertan paratu zuen kartelean *Bi Haizpe* idatzi zuela.

Egoera nahasi honetatik ateratzeko Euskaltzaindiari aholkua eskatu zitzaion. *Dos Hermanas* baztertu baina aukeran utzi zituen *Axitarte* eta *Biaizpe*.

Laburbilduz Nafarroako Gobernua erantzutzen izen ofizial bakarra euskaraz eta erdaraz *Dos Hermanas* da. Euskaltzaindiaren arabera berriz *Axitarte* eta *Biaizpe*. Zein aukeratu?

Honelako kasuetan, beste zenbaitetan, gauza bera idatzi dut: Praktikotasunari begiratu behar zaio. *Dos Hermanas* zilegi litza-teke euskaldunen izena delako. *Biaizpe* euskaldunek aditzen dute nahiz eta ez erabili eta gainera atlasetan ageri ohi den forma da (baita Espainia guzira egindakoetan ere). *Axitarte*, zaharrena eta erakargarriena izanda ere, pertsona bakar batek erabiltzen du. Ezin egokiago nobela historiko batean edo historia liburuetan erabiltzeko. Ez, ordea, komunikabideetan. Horietan *Dos Hermanas* eta *Biaizpe* dira aproposenak.

MIKEL BELASKO

Bizi Bizian

1 903an sortu zenetik lehen grebari ekin dio Cementos Portland enpresak. Zahar batzuek, «gurasoei adituta» 1923an ere baten bat izan zela azaltzen dute, baina marka historikoa, nolanahi ere. Nafarroan bizi den ekonomi egoeraren adierazgarri ezezik, fusio eta gestio txarraren ondorio garbia errentagarritasun tasarik altuenetakoa zuen enpresa batean.

Lehen greba

ALBERTO BARANDIARAN / OLAZTI

Cementos Portland-eko egoera ez da Nafarroako industriaren krisi garai honetako txarrena, inondik inora, baina franko esanguratsua da. «Sintomatikoa», sindikatuek esaten dutenez. Aspaldian lurraldeko enpresa nagusi batzuk —Lesakako Laminaciones, SEAT, CAI Pamplonica, eta orain Cementos Portland— krisiak jota dabilta, nahiz eta beren ibilera historikoak errentagarritasunaren eredu izan diren. Eta ereduaren artean eredu izateaz gain, Olaztin lantegia duen enpresari zenbait ezaugarri berezi gehitzen zaizkio.

Betidanik Sakanako enpresen artean 'Enpresa' izan da Cementos, eta ohorea eta zortea zen bertan lan egitea. Soldata altuak, lan baldintzak onak, zuzendaritzarekin harreman bereziak, Nafarroako agintariek beti azpimarratu izan dute enpresaren lana, eta duela bi urte ere bertoko enpresa onenen saria eskuratu zuen. Historia franko kontatzen dira agintarien —bereziki Cesar Garcia Monton Kontseilari Ordezkariaz— gizalegea buruz, eta gutxi dira enpresaren akzioari ez duten langileak. Fusioarekin, baina, etorri dira arazoak.

Orain arte hurbil-hurbileko harremanarekin ohituak —«arazoren bat zegoenean, Cesar jauna etorri, eta dena konpontzen zen»—, enpresaren zuzendaritza Madrilekoa izatearen ondorioak ezagutzen ari dira gertutik langileak, eta enpresan dagoen «hutsunea» salatzen dute. «Ez dugu inolako informaziorik izan fusioari buruz», dio Epifanio Marin Langileen Batzordekoak, «eta bakarrik komunikabideetan azaldu dena dakigu. Horretaz gain, hitzarmena eztabaidatzeko unean ez dakigu nora jo, eta enpresak soilik abokatu bat bidali digu. Hori ez dugu onartuko, benetan zer esanik daukatenekin mintzatu nahi baitugu».

Joan den ostiralean izan zen lehendabiziko bilera, eta bertara abokatua bidali zuen enpresak. Langileek % 7ko iguera, urteko zortzi lanordu gutxiago, eta langilegoaren soldaten parekatzea eskatzen dute, maila ezberdinen artean dauden gehiegizko desberdintasunak leuntzeko. Horrekin batera, abenduan bota zituzten behin-behineko kontratua zuten zortzi langileak berriro onartzea eskatzen dute, erretiro aurreratuen bitartez.

Beste urtetan erraz onartuko litzatekeen hitzarmenari baina, «ezezko borobila» eman zion

enpresak, eta langileak talde berriko beste enpresekin parekatzearen beldur dira. «Guk beti egin izan dugu gure hitzarmena, baina orain Valderrivaseko enpresarekin batera egin omen nahi dute. Horrek gure soldaten jaitziera ekarriko luke, betidanik hemengo soldata altuagoak izan baitira. Hala ere, iaz duela bi urte baino gutxiago kobratu genuen».

Eta, hala ere, enpresak 1.200 milioi pezetako etekinak izan zituen iaz —aurreko urteetan baino 1.800 gutxia—

Hurbil-hurbileko harremanarekin ohituak, zuzendaritza orain Madrilen egotearen ondorioak ezagutzen ari dira langileak.

Gauzak horrela, grebak askoren animoaz eta beste hainbesteren harriduraz segitzen du aurrera. Ez baita makala lehen greba. Olaztin ezezik Sakana osoan bizi diren 164 langileak —inguruan mugitzen diren beste ehunen batetekin—, fido dira enpresaz, baina

urteek eta ezagutzak sortzen duten adiskidantza galdu dute dagoeneko zuzendaritzarekin. Izan ere, Cesar jauna desagertu baita, eta bere tokia betetzeko prest ez omen dago inor. Bitartean, grebak, lehen grebak, badirau.



Langileek «behar den arte» jarraitzeko prest daudela diote.

A. B.

go—, produkzioa 200.000 tonatan gutxituta ere —943.000tik 743.000ra—. «Honek esan nahi du enpresa bakarrik ere errentagarria dela, 1.200 milioi horiek, jaitziera izanda ere, etekinak baitira, garbiak». Langileak bat datoz fusioari trabak jarri zizkiotenean enpresaren gaitzak azaltzerakoan eta EEBBetan egindako inbertsioak «galera jasanezinak» ekarri dituztela azaltzen dute. Beren ustetan, Olaztiko porlandegian gehiago ez inbertitzeaz gain —8.000 milioi zeuden arrikusita—, produkzioa murriztaraziko dute, kalitateko porlana soilik ekoizteko. «Horrela, Valderrivaseko lantegian ohizko porlana ekoiztuko lukete, eta hemen bakarrik kalitatekoa. Zentzu honetan jokaldia primerakoa izan da Koplowitz ahizpentzako».

Fusioari kritikak

A. B. / OLAZTI

■ Uztailen izango da ofiziala Valderrivas eta Cementos Portlanden arteko fusioa, 90 urtetako historia autonomoari bukaera emango diona. Prozesua «mingarria baina behar-beharrezkoa» zela esan zuten Olaztiko enpresako arduradunek urte honen hasieran izan ziren Batzar Ezohizkoetan, baina oposizioak gogor kritikatu izan ditu prozesua eta ondorioak.

Fusioaren beharra «aurrean zeuden erronkei aurre egiteko

derrigorrezkotzat» jo zuten enpresarietako eta akziodunen gehiengoak, baina Jose Ramon Madera enpresari eta akziodunaren ustetan, «ez dago arrazoi nahikorik fusio honen beharra baieztatzeke». Hiru dira, fusioaren kontra gehien jardun duen enpresari honen arabera, Cementos Portlandek azken urteotan egin dituen akatsik nagusienak, aipatu batzordeetan azaldutakoaren arabera. Lehendabizi, Bostonen (EEBB) egindako operazioak kritikatu zituen, «milioikako galera ekarri baitizkio enpresari».

Halaber, porlanaren arloan egin den «diseinu kaskarrari» leporatu zion urtetik urtera jaso den emaitza ekonomikoaren beherakada. Hirugarrenik, hori dagoeneko baieztatuta, fusioak galera handiak ekarri dizkie akziodunei, etekinak atera dituztenak Valderrivas enpresetakoak izan baitira. Halaber, Nafarroako Gobernuaren jarrera kritikatu du Maderak. «Hemengo proiektu original eta garrantzitsuenetakoa, beste askok bezala, alde egin digu, batzuen axolagabekeria eta besteen esperientzia faltagatik».

Juan Carlos Mujika

Iruñeko Orfeoiaren zuzendaria

Jose Antonio Huarte azken 20 urteotako zuzendaria kendu eta bere postuan Juan Carlos Mujika paratzea erabaki berri du Iruñeko Orfeoiaren Batzar Nagusiak. Kri-

sian sartuta, Nafarroako koralik garrantzitsuenak galdutako maila berreskuratu nahi du horrela, aldaketa gatazkatsu samarra atera bada ere.

«Oso minberak gara»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Juan Carlos Mujikak, Remigio Mujika Orfeoiaren fundatzailearen biloba, bere lehen entseiu ofiziala zuen astelehenean Pozoblanco kaleko egoitzan, eta ordu erdi lehenago, «lasai eta nerbiorik gabe» zegoen. 35 urtekoa, Konpositore Gazteen Espainiako Sari Nazionala 1981ean, Orfeoiaren egoera ez dela ona aitortu arren, baikor da etorkizunaren aurrean, «borrokatzaile hutsa bainaiz».

EGUNKARIA.— Aldaketa prozesua ez da oso lasaia izan, salaketak, etxeko kontuen garbiketa... Nola bizi izan duzu aurreko zuzendariarekin arazoa?

JUAN CARLOS MUJIKA.— Bai arlo profesionalean bai pertsonalean aldaketa baketsua eta ohizkoa komeni zitzaidan, hori baitzen hasierako asmoa, hau da, zuzendari laguntzaile gisa aritu, gero eta protagonismo handiagoa hartzeko, bera erretiratu arte. Hori zen egitasmo ideala, baina ezinezkoa izan da. Bat-batean kinka horretan egon naiz, eta zuzentzeari ekin behar diot, Orfeoia aurrera segitzen baitu gauza guztien gainetik.

EGUNKARIA.— Eta zure burua prest ikusten duzu horretarako? Aldaketa ez al da goizegi etorri?

MUJIKA.— Nik neuk nahiago nukeen aldaketa ohizkoagoa Orfeoiaren onerako izango baitzatekeen. Baina profesional naizen aldetik prestatuta nago. Urteak daramatzat egun hau prestatzen.

EGUNKARIA.— Zer eragin izango du ezohizko aldaketa honek Orfeoian?

MUJIKA.— Barrura begira, ez da ezer gertatuko. Huarteren alde botoa eman zutenek oso aukera zilegizkoa egin zuten, baina gehiengoaren emaitza onartuko dute, eta ziur nago ni eta Orfeoia la-

gunduko gaituztela. Kanpora begira oso interesgarria izan da baieztatzea gizartea kezkatzen duen gaia dela Orfeoia. Hori oso ona da. Gainera, arazoak batu egin du koroa, eta nik usten dut baikorrak izateko materia nahikoa badugula.

EGUNKARIA.— Baina gatazkaren irudia sortu du...

MUJIKA.— Bai, baina Euskadiko Orkestran antzeko zerbait gertatu da Gomez Martinezekin, eta Ciudad de Barcelonan, berdin, Garcia Navarrok. Zuzendariak horrela ateratzen direnean, zala-parta sortzen dute beti. Eta zala-parta hori gora-behera kontratuak eduki ditugu azkenotan. Beraz, ez dut uste hain larria denik.

EGUNKARIA.— Orfeoiaren gaur egungo egoera ez da aparta, denek aitortzen dute, baina nola aurkitu duzu? Esaten den bezain txarra al da?

MUJIKA.— Honelako koro batean beti daude gora-beherak, arazo pertsonalak edo dena delakoak direla eta. Oso minberak gara gauza nimenoei dagokienez, eragin handia baitute guregan. Orfeoia ez dago une onean, baina lana ongi egiten ari da. Baikor naiz, ezin baitugu orain galtzaileen rola onartu.

EGUNKARIA.— Zeintzuk dira Orfeoia, ehun urte beteta, lortu behar dituen helburuak, epeertainean?

MUJIKA.— Bereziki garai berrira egokitzea. Asko aldatu da kontzertuaren merkatua, eta horretara egokitu beharra dago. Nola? obrak ekoizteko denbora gutxituz, mundu honekin harremanak estutuz, eta koroaren kalitatea finduz. Horiak dira helburu nagusiak. Eta hori posible da gauzak fintzen badira.

EGUNKARIA.— Profesionalak ez direnekin aritu beharrak frustrantea al da?



MUJIKA.— Bai, baina amateurak badu musikarekin harreman freskoagoa, eta zuzendariak satisfakzio gehiago jasotzen ditu. Profesionala oso perfektua da, baina hotzagoa. Amateurrekin ez da hain perfektua baina harremana oso beroa da.

EGUNKARIA.— Baina musikaz ari garelarik, ez al da bereziki kontuan hartzen perfekzioa?

MUJIKA.— Harreman pertsonala funtsezkoa da. Orfeoia emaitza profesionalak eskeintzen dituen

koro amateurra dela diot nik. Montpeliarren Brahmsen lan bat abesten dugunean jendea ez zaio axola gu amateurak izatea, profesionalen emaitzak nahi baititu. Eta horrela txalotzen gaitu, eta horrela hartzen gaitu kritikak.

EGUNKARIA.— Egun non dago kokatuta Orfeoia?

MUJIKA.— Onenen artean. Estatu mailan Donostiako Orfeoia, Bilboko Sociedad Coral, Orfeo Catala eta gu gaude. Eta ordena honetan: Donostiakoa, gu, Bilbo-

Mujikak ez du etsiko, oso borrokalaria bainaiz, eta Donostiako Orfeoiarekin genuen lehia sano hori berreskuratu nahi dut».

koa eta Orfeo Catala. Eta gure helburua ez da hor irautea, hori gaintitzea baizik. Beti izan da lehia sanoa Donostiako Orfeoiaren eta gure artekoa. Hain zuzen ere, nere aitona, Iruñeko Orfeoiaren fundatzailea, gipuzkoarra zen, eta titulu asko lortuta zituen, fitxatu nahi izan zuten. Eta berak ez zuen onartu. Lehia hori nolabait galdu da, ez baitugu ezta zalantzan ere jartzen Donostiako Orfeoia gu baino hobea dela. Bada, Mujikak ez du etsiko. Ni oso borrokalaria naiz, eta lehia sano hori berreskuratu nahi dut.

EGUNKARIA.— Horretarako zerbait kopiatu behar zaio Donostiako Orfeoiari?

MUJIKA.— Kopiatu ez, gurea bultzatu behar dugu: gure estiloa, gure berezitasuna. Hori bai, kopiatu beharko genieke duten azpiegitura. Eusko Jaurlaritzak egoitza berria egiteko dirua eman berri die, eta New Yorkera joateko dirua ere ematen die, hala behar izanez gero, enbaxadorezt hartzen baitituzte. Hori hona ekarri beharko genuke.

EGUNKARIA.— Zein obra gure zenuke estreinatzea?

MUJIKA.— Niri gehien gustatzen zaidan obra —Brahmsen 'Requiem'— Orfeoiaren erreperorioan dago jadanik... Akaso, Faure-ren 'Requiem', batez ere pertsonalak diren arrazoi batzuenatik.

NOSKI
JATOR

ZVLDI EROA

NAFARROA KAPITAINAK "LUSIEN BONAPARTEREN MAPA" (KAR, KAR!) TXIKITU DU.

